

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2023ko uztailak 14 · 1279 zenbakia



BADATOR GUDA MUNDIALA

EUKi
ASEGURUAK



AUTO ASEGURUA

MOTORRA EDO FURGONETA
... BAITA QUAD-A,
AUTOKARABANA,
KAMIOIA,
BURU TRAKTOREA,
AUTOBUSA,
ATOIAK...

**AUTO
ASEGURU
ESKAINTZA**

**AURREZTU ZURE ASEGURUAN
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!**

Informazio gehiago: eukiseguros.com



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com



**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9 - 1.C
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Otodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
50 Kolonja da.
- INDIBATUTERAPIA
- KIBRE LENDIAK
- PNEUMIA ORA TERAPIAK
- K-meretx + DEPOZEMAKIA
ARRAGUTIA, 2D
TEL: 943 53 06 42
www.anelandia.com

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

arat.
MATEO GARCIA - TOLUEN KLINIKA

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Tartaria Ezeberria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 801
www.aratklinika.com



IRAZABAL
clínica dental

**Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK**

Julian Ezeberria, 12 - 1. Esk.
Tinea, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

**Dra. Laura
Martinez**



**Dr. Alejandro
Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgaitardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

Maitane G. Iniguez
Odontologian Lizentziatua
675 7076

San Agustín Kalea, 4 beheko ezkerria
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarcinica dental.com

MIGUEL SEMINARIO

ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85



**P. Echeverria
A. Esnaola**

Hortz klinika Clínica dental
Fernán Caballero 10-3. esk. EIBAR
943 20 72 12 - 660 422 808
@dypdent



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Eibarren Akebai plataformak 'Astindu' egitasmoa jarri du martxan eibartarrek eta Eibarko zerbitzuetako erabiltzaileek hizkuntza eskubideen inguruan izan ditzaketan zalantzak, kezak, galderak... jasotzeko eta argitzeko.



ARGITARATZAILA

...eta kितto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

kunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kितto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Arima Galduak

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kितto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kितto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Mankomunitateko arazoa

SER irratiko hauteskunde-etzabaidan, EAJ eta PSE entzun ditugu elkarrirasteak burura botatzen, Mankomunitatek egiten den kudeaketagatik. Mankomunitatea sortu zenetik, duela ia 40 urte, PSEk eta EAJk bakarrik izan dute Mankomunitatearen lehendakaritza. Eztabaida horretan, Eibarko alkateak Mankomunitateari erreklamatu behar zaiola badio ere, aldi berean, Urkizu eta Txaltxa Zelaiko azoka txikiko saltzaileei zaborra lurrera botatzea onartzen die. Hori garbitzeko, goizeko lanaldia ordu eta erdi lehenago amaitu behar dute bost langilek, arratsaldez bueltatzeko azoka txikiak garbitzera; Eibarko kaleei, alkateak zikinak daudela diotenei, zazpi ordutik goragoko garbiketara jarduna murriztuz. Gainera, erdiguneko ostalari batzuei onartzen die baita asteburuetan euren lokalen kanpoaldean botilak, edalontziak, kopak, kafe-katiluak... lagatzea eta zabor poltsak edukiontzietatik kanpo lurrean uztea ere.

Nolanahi ere, Eibarko garbiketara da Mankomunitateak duen arazorik txikiena. Arazo larriena da duela urte asko transferentzia-estazioa txiki eta zaharkitua geratu dela, eta bertan kokatzen da Mankomunitateko tailer mekanikoa. Estazio hori ezinbestekoa da Mankomunitateak ematen dituen zerbitzu guztien funtzionamendu onerako, ez bakarrik Eibarren, baita Debarrena eskualdeko udalerrir guztietan ere. Mankomunitateko ibilgailu gehienek urteko 365 egunetan egiten dute lan, horietako askok hainbat txandatan. Ematen diren zerbitzuak behar bezala burutzeko, ezinbestekoa da ibilgailu horien konponketa lanak egitea. Ibilgailu-flota biderkatu egin da azken urteetan, tailerraren egitura berbera denean hamarkada askoan. Horren ondorioz, ibilgailuak ez dira behar bezala mantentzen, horrek zerbitzuan eragiten duten akats eta matxurekin. Eta ezin zaie erantzukizunik leporatu ez tailerreko langileei ez zerbitzu ezberdinetakoei, baina bai PSEri eta EAJri, ia 40 urte baitaramatzate Mankomunitatearen kudeaketa txandakatzen. Ez dute arazoa konpondu nahi edo ez dira konpontzeko gai, gerentzia bezalaxe: hor ere badakigu badagoela hilerok soldata -eta ez txikia- kobratzen duelako; hori bai, gerentziak egindako lanaren arrastorik ez da.

Javi Prieto Blas

Astean esanak



Bilbao BBK Live festibalera joateko autobusa hartzera joan eta kartelak irakurri ditu musikazale euskaldunak: itxaropen gabe igo / sube sin esperas / get here without waiting. Marka da gero! Zer esperantza, zer itxaropen baztertu behar du? Musika ona adituko duen itxaropena? Udan sexu infekzioetatik babesteko banatzen diren kondoiak erabiliko dituen esperantza? Hori gutxi ez, eta beste kartel bat ikusi du euskaldunak San Mamesen: hartu zure eskumuturra / recoge tu pulsera / pick up your wristband. Ondo. Badakigu zer egin behar duen BBK Livera doan euskaldunak: itxaropenik ez izan eta eskumuturra hartu. Eskuburdinak jartzea besterik ez du behar.

JOSEMARI PASTOR, kazetaria

Epe ertainera auto kopurua ez da arazoa izango hirietan: gero eta gutxiago ekoizten dira, gero eta auto berri gutxiago saltzen dira, eta auto elektrikoak ezingo du inoiz ordezkatu egungo auto kopurua. Espainiako DGT Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren arabera, 2021eko amaieran estatuan 24,96 milioi auto zeuden, eta horietatik elektrikoak bakarrik 79.000. Erabat ezinezkoa da hamabi urtetan kopuru horretara iristea. Malgutasunak malgutasun, kotxe fosilak egiteko 2035eko muga hortxe bueltan dago.

XABIER LETONA, kazetaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ORDIAZKO → Ordezko. “Gaur zure anaia alkate ordiazko dago”.

Mailegutuan uzten dena. “Harek daroian soiñekua, ordiazkua dau”.

Gezurrezko. Gaztelerezko ‘postizo, falso’. “Atara eban ordiazko frailliorrek ezkutuan zeroian makilla sendua”..

1968

Dantzariak Amañako jaietan

Plazaolaren argazki honetan ondo ikusten den moduan, sasoi batean Amañako jaietan ohikoak izaten ziren euskal dantzen erakustaldiak. Orduko eszenatokiak zerikusi gutxi dauka gaur egun ipintzen dutenarekin.



Farmaziak

BARIXAKUA 14
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 16
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
ASTELEHENA 17
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 18
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUAZTENA 19
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 20
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
BARIXAKUA 21
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxeberria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Mari Paz Kaperotxipi Garate**. 76 urte. 2023-07-06.
- **Juan Mari Lopez Andonegi**. 76 urte. 2023-07-09.
- **Jose Montaña Robles**. 71 urte. 2023-07-12.

Jaiotakoak

- **Anthony Rodriguez los Santos**. 2023-06-18.
- **Jeyler Miguel Liria Corsino**. 2023-06-24.



Gaur agurtuko dituzte jaiak Amañan

Eguraldia lagun, primerako jaiak ospatu zituzten asteburuan Amaña auzokoeak, baita jaiarekin bat egitera bertara joandako beste guztiak ere. Asteburu bete-betea eta gero, gaur agurtuko dituzte aurten 45 urte bete dituzten Amañako jaiak. Egurdian jubilatuentzako bazkaria egingo da, Unzaga Plaza hotelean, eta 19:00etan bertso-merienda, Sosola baserrian, Sustrai Colina eta Onintza Enbeita bertsolariekin.

Alberto San Emeterio San auzokideak Amaña es la Caña elkartearen oroigarria jaso zuen. Beheko argazkia berea da.



Pentsioen aldeko manifestazioa

Zapatuan pentsioen aldeko manifestazioa egin zen Eibarren, 230 bat lagunengatik parte-hartzearekin. Oporren aurretik, hitzordu garrantzitsua daukate Bilbon, datorren asteko Pentsiodunen Nazioarteko Jardunaldietan



AUTUAN

1948an JAIOTAKOEN BAZKARIA IRAILAREN 29an

1948an jaiotako enbarkaria irailaren 29an izango da. Aurten 75 urte betetzen dituztela ospatu nahi dutenek 90 euro sartu beharko dituzte Kutxabaneko ES16 2095 5035 0091 2272 5628 kontuan (azken eguna irailaren 10a izango da).

1963an JAIOTAKOEN BAZKARIA IRAILAREN 30ean

Aurten 60 urte betetzen dituzten enbarkaria irailaren 30ean izango da. Joateko interesa duenak 85 euro sartu beharko ditu Kutxabanken, ES14 2095 5035 0091 2252 0024 kontuan, izen-abizenak ipinita (uztailak 30 baino lehen). Eguerditik abiatuko den egitaraua prestatzen ari dira: luntxa, taldeko argazkia, txikiteoa, bazkaria, eta festa Punto y Aparten. Informazio gehiago: 1963eibar2013@gmail.com.



Udalbatzak udalaren batzorde eta ordezkartzen osaera onartu du

Lan Batzorde eta Aholkularien eta Ordezkaritzen osaera eta organo desberdinetako ordezkarien izendapenak onartu zituen Eibarko Udalbatzak, barixakuan egindako bilkura berean. Bilkura berean onartu zituzten, baita ere, udal taldeen sorrera eta osaera eta hautesien eta behin-behineko langileen ordainsariak. Era berean, alkateordeen izendapena ere onartu zuten: Alberto Albistegi Zamakola, Ana Telleria Etxeberria eta Vanesa Hortas Mojon. Hiru hauek osatuko dute, alkatearekin batera Tokiko

Gobernu Batzarra agintaldi honetarako. Udal Araudi Organikoaren arabera, Udaleko Lan Batzordeak izenarekin, lan-batzorde bakoitza zortzi kidek eta batzordeburuak osatzen dute. Jon Iraola alkateak izango duen lehendakari gisa, datozen egunetan PSE-EEko hiru kide, EH-Bilduko bi kide, Eibarko EAJ-PNVko bi kide eta Elkarrekin Podemoseko kide bat izendatuko dira. Aholku Batzordeak, batzordeburuak eta beste ordezkariak Eibarko Udalaren webgunean kontsultatu daitezke.

EIBARKO EKINTZAILERIA PROGRAMA

ZURE ENPRESA-IDEIA ZEHAZTEKO LAGUNTZA BEHAR DUZU?
EZAGUTU AURREKO EDIZIOKO PARTE-HARTZAILEEN ESPERIENTZIAK. QR ESTEKA YOUTUBERA.

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: UZTAILAK 24

EMAN IZENA!

Ezagutu aurreko edizioako parte hartzaileen esperientziak QR estekan zehaztu.



Udalaren egiturak eta zinegotzien soldatek “premiazko berrikuspena” behar dutela uste dute EH Bilduko ordezkariak

Eibarko EH Bilduko ordezkariak adierazi dutenez, Eibarko Udalaren egiturak eta zinegotzien soldatek “premiazko berrikuspena behar dute. Gehiegizkoak dira PSEren udal Gobernuak sortutako 18 Batzorde Aholkulariak, aurreko agintalditik hona bat gehitu dute, inolako hausnarketa barik”. Bildurentzat “Udala modernizatzeko, lan egiteko

modua aldatzeko ordua da. Herriaren gaur egungo premiek beste kudeaketa-formula bat behar dute, eta gaiak modu transbertsalean aztertu behar dira, begirada integralagoarekin eta elkarlanean”. 18 Batzorde horiek “guztiz berritzaileak eta zeharkakoak” izango lirartekeen zortzi Batzordetara murriztea proposatu dute. Horrekin batera, alkate

eta zinegotzien soldata eta dietekin oso kritiko azaldu dira: “Eibarko Udalaren 2023-2027 agintaldiko osaera Plenoan alkate eta zinegotziek jasoko dituzten soldatak eta dietak onartu zituen PSEk, PNVren abstentzioaren laguntzaz, EH Bilduk puntu horren kontra bozkatu baitzuen. Zilegi al da alkate batek 71.000 euroko soldata jasotzea? Argi dago dieta eta soldatek hausnarketa eta debate sakon bat behar dutela”. Bilduren arabera, “PSEk eta PNVk dieta kontzeptua desitxuratu dute. Zinegotzi ez liberatuek jasotzen dituzten dietak ez dira inolaz ere soldata gehigarri bat. Dietak jaitsi dituela dio PSEk, baina tranpa egiten ari da. Izan ere, dietak 313 eurotik 200-250 eurotara jaitsi dituen arren, ez du dirumuga ukitu, eta hau 1.000 eurokoa da hileko”. EH Bilduk dietak 100 eurotara murriztea proposatu du, hilean 300 euroko mugarekin. Amaitzeko, Hezkuntza Teknikaria kontratatzeko eta Hezkuntza Batzorde aholkularia martxan jartzeko beharra dagoela nabarmendu dute.



AYA-ko langileek hiru eguneko greba deitu dute uztaileko, "enpresak inposatutako aldaketak" indargabetzeko

LAB sindikatutik jakinarazi dutenez, Aguirre y Aranzabal (AYA) tailerreko langileek mobilizazioak deitu dituzte, “enpresak ezarritako aldebakarreko aldaketak salatu eta lan-baldintza egokiak eskatzeko”. Uztailean bertan hasiko dira, hilaren 26, 27 eta 28an greba eginda. Eta irailaren 4tik aurrera greba mugagabea hasiko dute. Lanuzteak eta kontzentrazioak ere egingo dira. Horrela, “enpresak aldebakarrez hartutako eta inposatutako erabakiak indargabetzea”

lortu nahi dute, “erabaki horien helburua plantilla zatitzea eta oinarrizko eskubide sindikalak urratzea” dela gaineratuta. Horrekin batera, “errepresio sindikala eta langileenganakoa” amaitzea nahi dute. Sindikatuaren arabera, “enpresak ez du negoziatzeko asmorik erakutsi, eta ez da bildu nahi izan langileen legezko ordezkariekin. Horregatik, bat egiten dugu mobilizazioak hasteko erabakiarekin, adostasuna lortu eta egoera birbiderratu ahal izateko”.



Udako Merkealdien Azoka zabalduko dute eguaztenean Toribio Etxebarria kalean

Eguazten goizean inauguratuko dute Udako Merkealdien Azoka Eibar Merkataritza Gune Irekiko eta Udaleko ordezkariek. Hiru egunetan egongo da Toribio Etxebarria kalean, barixakura arte, eta 10:00etatik 20:00etara zabalduko dute. Edizio honetan 31 dendek hartuko dute parte. Horietako 20 karpetan egongo dira eta gainontzekoek dendan bertan egingo dituzte eskaintza bereziak.

Bestalde, aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere...eta kitto! Euskara

Elkarteak hartuko du parte, **Euskeraz Primeran!** kanpainarekin, herritarren artean euskararen erabilera areagotzeko asmoz. Euskara elkartearen mahaia Birjiñape tabernaren parean ipiniko dute, eta gerturazten direnei ostalaritzako hiru elementu identifikatzeko eskatuko zaie, asmo horrekin eramango duten posterrean. Trukean poltsa bat oparituko diete eta, gainera, EMGIaren 100 euroko erosketa-txartela irabazteko aukera izango dute, azken egunean egingo den zozketan.

Mekolako eskaileren lehen zatia itxi dute, igogailuaren lanengatik

Mekola eta Arrate Bide lotuko dituzten bi igogailuetako lehena eraikitzeko lanak hasi direla-eta, eskaileren lehen zatia, Mekolako 5. eta 6. zenbakien inguruan dagoena, itxita dago astelehenaz geroztik eta ez dute zabalduko obra amaitu arte. Udaletik jakinarazi dutenez, Arrate Bidera edo Mekolako tarteko gunera joan nahi duten oinezkoek 6., 7. eta 8. zenbakien inguruan dagoen bidea erabili beharko dute eta, gero, eskaileren bigarren zatitik igo ahal izango dira, Arrate Bidera iristeko.

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK
Urkozu, 11 - solairuartea
688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI
Grua-kaldea

FUNERARIA MUGICA
Pamplona

TANATORIO EIBAR

TANATORIO ERROTORO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Osaola, 27	Elgoibar: Xibilon, s/n. SIGMA Industriaidea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 18

Eibar - Elgoibar - Ermua - Bilbo - Barakaldo - Leloa - Getxo - Sestao
Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao

“Hainbeste urtez martxan jarraitu ahal izateko punta-puntan egon behar zara etengabe”

INDUSTRIAS MAIL • Iñaki Goenaga aitorpena



Joan zen astean banatu zituzten Toribio Echevarria Sariak eta bio/osasun eremuko bi enpresa-proiektuk jaso zituzten sari nagusiak: Mikrobiomik ('Ideiak/Enpresa Proiektuak' saria) eta Glucovibes ('Enpresa berria' saria). Bestalde, LetMeCharge, Vidext Technologies eta Industrias Mail enpresek beste sari aipagarri batzuk lortu zituzten sari hauen 33. edizioan.

Industrias Mail enpresak 'Iñaki Goenaga aitorpena' jaso zuen, eibartarren 60 urte baino gehiagoko ibilbideari balio emanez. Hainbat belaunaldi pasa dira dagoeneko enpresatik, baina sortzaileen oinordekoek jarraitzen dute horren buruan: Igor Leturiondok, Xabier Izagirrek eta Aitor Alberdik.

60 urte inguru darama martxan Industrias Mail enpresak eta denak Eibarren egin ditu. Gure paisaiaren ikur da, baina denok jakin dezagun, zer egiten duzue zehazki?

XABIER: Mozteko erreminta bereziak egiten ditugu batez ere. Eta hori zer den? Ba, adibidez, Elgoibarko makina erremintek, txirbil-harroketako makinek, erreminta jakin batzuk behar dituzte. Erreminta bereziak dira, burdindegietan aurkitzen ez direnak, eta hain zuzen ere horiek egiten ditugu. Bezeroek euren beharrak zehazten dituzte, guk behar hori garatzen dugu eta pieza ematen diegu. Sarrailagintzan, automozioan, balbulagintza eta aeronautika arloetan egiten dugu lan batez ere.

Nola hartu duzue saria? Nolako esanahia du zuentzat?

AITOR: Demaseko ezustekoa izan da guretzat, ez genuen inolaz ere espero.

XABIER: Gainera, Toribio Echevarria sariak berrietasunez lotuta joaten dira gehienetan, eta burutik ere ez zitzaigun pasatzen guri aitorpena egitea. Noski, Iñaki Goenaga sariarekin gure ibilbidea aitortu dute, baina guk ez genuen pentsatu ere egiten.

Ibilbidea aitortzeko ere, berritasunak eta horrelakoek ere tokia eduki behar izango zuten zuen enpresan, ezta?

AITOR: Hasteko, urte asko eduki behar dira ibilbidea aitortzeko; eta gero, gauzak txukun samar egitea.

XABIER: Hainbeste urtez martxan jarraitu ahal izateko punta-puntan egon behar zara etengabe. Teknologia urtero-urtero aldatzen da eta martxan egon garen urteetan demaseko eboluzioa egon da. Zentzu horretan, nolabaiteko arazoa dugu. Izan ere, gure makinak ez dira ekoizpenari begirakoak, baizik eta lote txikiak egiteko. Orduan, programak aldatzen ibili behar gara etengabe eta polibalentzia handia behar da horretarako. Ondorioz, langileak



Aitor Alberdi, Igor Leturiendo eta Xabier Izagirre joan den astean jasotako sariarekin. EKHI BELAR

etengabeko formakuntzan egon behar dira. Zorionez, langileak oso konprometituta egon dira beti eta ez da egon arazo handirik.

AITOR: Langileen artean ez dago txandakatze handirik, nahiko egonkorra da. Langile askok 20-30 urte daramatzate gurekin.

IGOR: Egia da gurekin lanean hasten zarenean bi urte behar direla gauzak ikasteko eta gero gauzak zeure kabuz egin ahal izateko. Gauza asko eskuz egiten ditugu. Hau da, makina guztiak ez dira automatikoak eta eskua hartu behar zaie.

Beraz, modernitatea eta artisau-lana uztartzen dituzue?

XABIER: Batzuetan lote txikiak egitea eskatzen digute, pieza bat egitea adibidez, eta ez dakizu berriz berdina eskatuko dizuten ala ez. Orduan, horrelakoak eskuz egiten ditugu, baina eskuekin ondo lan egiten duen langilea behar duzu horretarako.

Eskuz egiten den lan hori desagertzen joango da ala beharrezkoa izango da horrekin jarraitzea?

XABIER: Ezustekoak hartzen ditugu horrelakoekin, batzuetan eskuz egin beharreko lan gehiago jasotzen

“Gauza asko eskuz egiten ditugu. Hau da, makina guztiak ez dira automatikoak eta eskua hartu behar zaie”

ditugulako gutxiago beharrean.

IGOR: Gainera, beste inork egiten ez dituen lanak direnez, guk hartzen ditugu.

XABIER: Normalena, hala ere, teknologia berriek gero eta toki gehiago hartzea da.

Zuen ibilbidea saritu dute, baina etorkizunera begira zaudete. Nola ikusten duzue?

AITOR: Zaila (barreak). Gorabeherak daude. Batzuetan lan asko dago eta beste batzuetan gutxiago.

XABIER: Pandemiarekin, Ukrainako gerrarekin... azkenengo urteak zailak izan dira. Hemendik aurrera gauzak hobetzea espero dugu, baina datorrenari egokitu beharra dago, beste zerbait gertatuko baita

etorkizunean. Lehen Txina zen mehatxua, gero pandemia etorri zen, gerra ondoren... datorrenerako prest egon behar zara.

Hainbeste urtetako esperientzia baliagarria zaizue horrelako egoerei aurre egiteko?

XABIER: Gure alderdirik indartsuena, esperientziaz gain, bezeroekin dugun harreman zuzena da.

IGOR: Gure tratua oso gertukoa da. Orain agian gutxiago, baina lehen arazoren bat zuena gure atara etortzen zen eta momentuan konpontzen genion. Eguneroko behar horiek asetzen ditugu eta horrek bezeroekin harremana estutzen du.

XABIER: Gure alderdirik ahulena, ostera, esportazioak dira.

AITOR: Salmenten %30 inguru bidaltzen dugu atzerrira. Munduko toki askotara esportatzen dugu: Mexikora, Alemaniara, Italiara, Australiara, Hego Afrikara...

Nola iritsi zarete toki horietara?

AITOR: Mexikora, adibidez, hemendik joandako enpresekin batera eskutik heldu gara. Webgunearen bitartez ere bezeroak lortzen ditugu.

XABIER: Lehen azoken bitartez lortzen ziren bezero berri gehienak, baina gaur egun gauzak aldatu egin dira.

Nolakoak izan ziren Industrias Mailen hasierak?

AITOR: Gu enpresaren hirugarren eta laugarren belaunaldikoak gara.

XABIER: Enpresa 1958an jaio zen, Urki auzoan. Sasoi horretan demaseko lan aukera zegoen Eibarren eta denak balio zuen, gauza onek eta ez hain onek. Orduan ez genuen komertzialen beharrik ere. Lan bila irten barik, etorri egiten zen.

Gaur egun egiten dituzuen antzeko produktuak egiten zenituzten?

AITOR: Hasieran pintzak egiten genituen, baina berehala hasi ginen tratamendu termikoak eta erremintak egiten.

XABIER: Igorren aitxitxa, Ignacio, oso ona zen fabrikazioan eta berehala ikusi zuen erremintak egiten aurrera egiteko aukerak zeudela. Gero, tratamendu termikoa albo batera laga genuen eta erremintekin bakarrik geratu ginen. 90eko hamarkadan komertzial bat hasi zen gurekin lanean, European zehar bezeroak bilatzeko, baina ordura arte komertzial barik ibili ginen. Urkitik Apalategira etorri ginen,



“Urkitik Apalategira etorri ginen, gero enpresa handitu genuen, teknologia berriak aplikatu genituen eta gauzak beste modu batera egin behar zirela ikusi genuen”

gero enpresa handitu genuen, teknologia berriak aplikatu genituen eta gauzak beste modu batera egin behar zirela ikusi genuen.

60 urtetan gauzak asko aldatu dira. Zuen enpresan nola eraman dituzue aldaketa horiek?

IGOR: Gauza berriak poliki-poliki sartu ditugu, ikusten genituen beharren arabera.

AITOR: Esan bezala, bezeroek eskatzen diguten gauzei eta merkatuari egokitzen joan gara.

IGOR: Hori da polibalentziaren kontua. Arlo baten lan gutxi dagoela ikusten baduzu eta bestean gehiago badago, beste hori egin beharko duzu aurrera egiteko.

XABIER: Arlo batetik bestera mugitzeko gaitasuna eduki behar da, gauzak ondo egiten jakinda.



AITZOL LEJARDI VALLEJO
ETXEBIZITZA SINDIKATU SOZIALISTAKO KIDEA

Hemen da Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista

Ekainaren 10ean Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista aurkeztu genuen Bilbon. Pasa den urtetik martxan dabilen Deba bailarako Etxebizitza Sindikatua horren barnean kokatzen da. Izan ere, azken urte hauetan zehar hainbat etxebizitza sindikatu sortu dira Mugimendu Sozialistaren baitan Euskal Herrian, eta Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren aurkezpena maila lokaletik antolakuntza nazionalera pasatzeko beharraren isla da.

Bilbon egindako aurkezpena ez da marka berri baten aurkezpen soila, doako etxebizitza duin eta unibertsalaren aldeko proposamen politiko oso bat baizik. Alderdi parlamentarioen esanetan, etxegabetzeak iraganeko kontuak dira, baina, azken hilabeteen Erandion, Hernanin eta beste hainbat lekutan eman diren etxegabetzeek errealitate gordina zein den erakutsi dute. Etxegabetzeek gain, etxebizitzaren arazoa larrituz doa: alokairuen prezioa maximo historikoetan dago EAEn, 3.000 etxebizitzatik gora daude hutsik Nafarroan, etxebizitzaren ia %30 luxuzko etxebizitza da Ipar Euskal Herrian, 700 etxegabetzetik gora izan ziren EAEn 2022an, 3.600 lagun inguru bizi dira kale gorrian Euskal Herrian eta etxebizitzaren bahitura kasuek ugaritzen jarraitzen dute.

Proletalgoaren bizi bitartekoak garestitzen ari diren honetan, oinarrizko bizi bitartekoetara iristen ez direnen kopurua gero eta handiagoa da. Etxebizitza eskubidea sistematikoki ukatu zaio proletalgoari.

Honen aurrean, Etxebizitza Sindikatu Sozialistatik antolakuntzarako deia luzatzen dugu. Kalitatezkoa, doakoa eta unibertsala izango den etxebizitzaren alde, Estatu Sozialista eraiki. Edozein kasutan gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, kontaktatu esindikatu. debabailara@gmail.com helbidearen edo 671 19 59 24 zenbakiaren bidez.

**“Etxebizitza
 eskubidea
 sistematikoki
 ukatu zaio
 proletalgoari”**

Ekimen solidarioak Debabarrean

Mendaroko eta Ermuko herritarrek ekimen solidario bi jarriko dituzte martxan egunotan. Mendaron, iaz hasitako bideari jarraituz baina gaia aldatuz, bularreko minbiziaren ikerkuntzari laguntzeko garagardo azoka egingo dute domekara arte (uztailaren 16ra arte). Ermuan, berriz, paella solidarioa eta txakur erakusketa egingo da SLC6A1-Spain elkarteari laguntzeko.



Atzo eman zitzaion hasiera Mendaroko garagardo azoka solidarioari eta domekara arte egongo da zabalik. 'Bizitzaren erronkak' izena izango du aurten eta bularreko minbiziaren ikerkuntzara bideratuko dute biltzen duten dirua.

Mendaroko Udalaren eta herriko zenbait eragileren laguntzarekin eta hainbat enpresa eta saltokiren babesarekin antolatu dute azoka, eta boluntario taldea jardungo da lanean. Dena dela, nabarmendu dute laguntzeko modu asko daudela, eta azokara joatea eta antolatu dituzten ekintzetan parte hartzea ere oso lagungarri izango zaiela.

Lau eguneko egitaraua antolatu dute, eta ekintzak herriko gun ezbardinetara zabalduko dituzte, baina azokak Mendaroko frontoian izango du gun e zentrala. Han atonduko dute otorduetarako lekua, egunero berrehundik gora laguni bazkaltzen eta afaltzen emateko (14:00etatik 17:00etara bazkariak eta 20:30etik 00:00etara afariak).

Azokan garagardoa hartu nahi duenak pitxerra erosi beharko du frontoira sartu aurretik, 2 euro ordainduta.

Lau egun, hamaika ekintza

Egun bakoitzari ukitu berezia ematen saiatu dira antolatzaileak. Atzokoa, adibidez, minbizia ikertzen ari



Iazko garagardo azoka solidarioaren irudiak. BARREN

diren ikertzaileen lana eta gaixoei nahiz haien etxekoei laguntzen ari diren elkarteen egitekoa ezagutarazteko eguna izan zen, eta bertan izan ziren azokan bilduko den dirua jasoko duten Biodonostiako ikertzaile taldekoak eta bost elkartetako ordezkariak: Bularreko Minbizi Metastasikoa Elkarteak, Asgicer, Katxalin, Iñurri eta Minbiziaren Aurka Gipuzkoan.

Bigarren eguna, gaurkoa, enpresetako jendearentzat prestatu dute propio, eurentzako bazkaria prestatuz. Antolatzaileek uste dute uda aurreko bazkariak egiteko aukera paregabea dela enpresetakoentzat. Bazkalostean zezen mekanikoa eta musika izango dituzte, eta gau horretan ere egongo da frontoian afaltzeko aukera.

Uztailaren 15a, zapatua, da beharbada ekintzaz beteena datorrena. Herriko jubilatuek talde batek antolatu duen ordubete inguruko ibilaldiarekin hasiko dute eguna, eta xakea, haurrentzako tailerrak, body combat eta Sh'Ban saioa eta gehiago izango dira aukeran. Gauean, berriz, erromeria, Bada Girorekin.

Domekari, azkenik, euskal ukitu berezia emango dio In Leike elkarteak. Plazan Dantzan erromeria, kantu bazkaria eta bertso afaria lotu ditu egun horretarako, azokaren baitan. Horrekin batera, euskal jantzien erakusketarekin ere zabalduko dute bi herritarrek jubilatuen ondoko lokalean, Haritz EDTren eta Gloria Sukia jostun debarraren laguntzarekin. Lau egunez egongo da zabalik.

Gaixotasun arraroari aurre eginez

Ermuan Hugo Madueño izango da protagonista, SLC6A1 genearen mutazioaren ondorioz Entzefalopatia Epileptikoa eta Garapenaren Entzefa-

Mendaroko garagardo azoka solidarioan jasotako dirua bularreko minbizi ikertzeko bideratuko dute



Entzefalopatia Epileptikoa eta Garapenaren Entzefalopatia gaixotasuna dutenei laguntzeko ekintzak egingo dituzte Ermuan



Andrés eta Laura euren bi seme nagusiekin, Izan (9 urte) eta Hugo (5 urte). DROGETENITTURRI

lopatia gaixotasuna duen umea. Laura Diaz eta Andres Madueño gurasoek 2019an jaso zuten bere semearen diagnostikoa eta 38.000 biztanletik bati erasoten dion gaixotasun arraro berria duela jakin zuten. Harrezkero, bide neketsua egin dute, baina aurten Estatuko beste familia batzuekin elkartu dira eta ikerketarako dirua biltzen ari dira. Horren harira, bihar txakur erakusketak eta paella solidarioa egingo da Ermuan, eta jasotako dirua SLC6A1-Spain elkarteari emango diote.

Entzefalopatia Epileptikoa eta Garapenaren Entzefalopatia gaixotasun neurologikoa da eta hainbat sintoma izan ditzakeen arren, epilepsia da ohikoena. Diagnostikoa jaso zuenetik, Hugok epilepsiaren kontrako botika hartzen du, besteak beste. “Ez du txarrera egiten, baina ez da hobetzen”, aipatu dute gurasoek Drogetenitturri aldizkarian egindako elkarrizketan eta, hainbat lanketa eta terapia jasotzen dituen arren, “ez daukagu ez dirurik ezta denborarik ere ezer gehiago egiteko”, euren berbetan.

Azken ikerketen arabera, gaixotasunak sendabidea izan dezake. Madrilgo mediku-genetikari batek lan taldea sortu zuen Hugoren gaixotasunaren aldaera aztertzeko eta jakin zuten Ravicti botika hartuta epilepsia ia-ia desagertu daitekeela. Kontua da munduko laugarren botikarik garestiena dela eta tratamenduak 2.000 eta 3.000 euro bitarteko prezioa duela hilean.

Hainbat ekintza Ermuan

Aurkitu diren sendagaiak garestiak direnez gehiago ikertzeko beharra dagoela ikusita, Ermuan hainbat ekintza eta kanpaina jarri dituzte abian. “Hugoren eskolako beste guraso batzuk, Oscar Benítez ‘Goiko’-k eta Veronica Pavok, proposatu ziguten txakur erakusketa bat egitea, eta aurrera egingo dugu. Esan ziguten eskolako beste aita bat (Jesus ‘Toretto’) epaile zela txakurren edertasun txapelketetan eta berak ere parte hartuko duela”, aipatzen dute gurasoek. Beraz, Santixauetako egitarauaren barruan txakurren edertasun erakusketa egingo da bihar, Arizmendi pilotalekuan, 10:00etatik 21:00etara.

Egun eta toki berean, paella solidarioa egingo da (paella bost euroren truke). Bertara joan ezin ahal denak ere lagundu ahal izango du kontu korrante honetan dirua emanaz: ES37 2103 7089 0300 3002 5043.



Lana artea bihurtzen duen herria. ESTEBAN VOUILLOZ

“Euskal hiztunok gure hizkuntza eskubideak defendatu behar ditugu”

ANE ALBISU • Eibarren AKEBAIko koordinatzailea



Beldurrak, zalantzak eta ohiturak astindu nahi dituen egitasmoa da ASTINDU. Eibarren AKEBAI-k sortua, eibartarrek eta Eibarko zerbitzuetako erabiltzaileek hizkuntza eskubideen inguruan izan ditzaketen zalantzak, kezkak, galderak... jasotzeko eta argitzeko kanala da, bertokoa, gertukoa eta herrikoa. AKEBAIko Ane Albisuk dioen moduan, euskaldunok gure hizkuntza eskubideak defendatzen ez baditugu, zeinek defendatuko ditu?



BIDEOA

Zer da ASTINDU EIBAR?

Herritarrentzako zerbitzua da. Egitasmoa 2021ean sortu zuen AKEBAI eta orain bultzada bat eman nahi izan diogu. Hizkuntza eskubideen atari bat da, Eibarko zerbitzuetako erabiltzaileek hizkuntza eskubideen inguruan dituzten zalantzak, kezkak eta iradokizunak planteatu ditzaten. Gure egunerokoan euskaraz jarduteko eskubidea daukagu (administrazio publikoarekin ditugun harremanetan, bi hizkuntza ofizialetan ikasteko eskubidea daukagu, komunikabideetatik informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea daukagu...), baina gure eskubideak baldintzatuak eta mugatuak daude, legediak berak babes nahikoa eskaintzen ez digulako. Herritarrok ez dakigu zer egin behar dugun eskubide horiek bermatuak izateko, eta horretarako daukagu ASTINDU.

Aurreko astean ASTINDUren berri ematen duen dip-tikoa banatu duzue Eibarko etxebizitzetan...

Hizkuntza eskubideak oinarritzko giza eskubide bezala defendatzeak duen garrantziaz konsziente izan behar dugu. Ezjakintasun handia dago gai honen inguruan, eta askotan herritarrok ez dakigu hizkuntza eskubideak ditugunik ere. Horregatik, alde batetik informazio hori helarazi nahi dugu, eta, bestetik, administrazio publikoarekin harremanetan eta edozein establezimendutan

“Eibarren hizkuntza eskubideen inguruan sor daitezkeen zalantzak, kezkak eta galderak argitzeko sortu da ASTINDU”

edo kalean hizkuntza eskubideen inguruan sortu ahal diren zalantzak argitzeko gaudela azaldu nahi diegu herritarrei. ASTINDU kanala erabiltzera animatu nahi ditugu, azken batean gehienbat herritarrok garelako aldaketen eragile. Zerbitzu hau erabilia, horrek eragina dauka eta aldaketak eragin ditzake.

Zerbitzua bertokoa, gertukoa eta herrikoa dela diozue.

Zerbait gertukoa sortu nahi genuen. Egia da ez dela zertan eibartarra izan ASTINDU erabiltzeko. Azken batean Eibarko zerbitzuen erabiltzaile diren herritar guztiek erabili dezakete, eibartarrak izan ala ez. Euskal Herri mailan badago Hizkuntza Eskubideen Behatokia delakoa, eta eurekin elkarlanean aritzen gara. Eibarren helburu berarekin sortu genuen ASTINDU, baina gertutasun horretan oinarrituta. Guk hemengo

erakundeekin, establezimenduekin eta enpresekin harreman zuzena daukagu, eta herritarrarengandik hurbilago egoteko aukera daukagu.

Planteatu ahal ditugun gaiak eta kekek nolakoak izan daitezke? Adibideren bat jarri dezakezu?

Kexa, zalantza eta iradokizunak anitzak izan daitezke. Izan daiteke, esaterako, arreta euskaraz jaso nahi dudala baina gaztelerez egiten didatela; izan daiteke paisaia linguistikoarekin lotutakoa (nire auzoko dentetako erakusleihoetan kartelak gaztelania hutsean daudela...). Holako gauzak ASTINDU n kontsulta daitezke, horien aurrean zer egin daitekeen jakiteko. Askotan izaten da ezjakintasuna edo herritarra bera ez dela ausartzen zuzenean hori eskatzera. Guk eskaintzen dugu behar duten laguntza eta bitartekari lana egiten dugu.

Esan daiteke, beraz, euskaldun hiztunok haratago joateko, ahalduntzeko eta gure eskubideak aldarrikatzeko deia egiten duzuela.

Eibarren AKEBAI sortu zenean gure helburua zen Eibar euskadunago bat lortzea. Euskaratik urrun daudenak euskarara hurbildu behar ditugu, baina egia da euskaldunok ahaldundu egin behar garela. Hasteko, gure hizkuntza eskubideak zeintzuk diren ezagutu behar dugu, guk defendatzen ez baditugu inork ez dizkigulako defendatuko. Gu izan behar gara eskubide horiek babestea eskatu behar dugunok. Gure hizkuntza eskubideak aldarrikatu behar ditugu,

Diptikoan azaltzen duzuen moduan, gauzak modu baikor eta eraikitzailean egitea lehenesten duzue. Zer esan nahi duzue horrekin?

Modu baikor batean eramaten ditugu gauzak aurrera. Ulertarazi behar dugu aldaketa hauek denon onerako direla. Zerbitzu batean ikusi baldin badugu kartela gaztekanian hutsean dagoela eurekin kontaktuan jartzen gara eta baliabideak eta laguntza eskaintzen diegu (itzulpenak, zuzenketak...), eta ulertarazten diegu

“Modu baikor eta eraikitzailean eramaten ditugu gauzak aurrera. Ulertarazi behar dugu denon onerako dela hizkuntza eskubideak bermatzea”



modu horretan euskal hiztunon hizkuntza eskubideak errespetatzen direla, baina aldi berean euren zerbitzua- ren kalitatea hobetzea dakarrela. Denon onerako da hizkuntza eskubideak bermatzea.

Zeintzuk dira herritarrok ASTINDUrekin harremanetan jartzeko ditugun bideak?

Alde batetik, presentzialki Portalean gaude, bigarren solairuan; korreo elektronikoz ere jarri daitezke gurekin harremanetan, eibarrenakebai@gmail.com helbidean; eta telefonoz ere deitu daiteke 943 708426 zenbakira. Gainera, AKEBAIko webgunean formulario bat dago. Hori betetzen badute guri zuzenean iristen zaigu eskaera.

Orain arte nolako kekek egon dira?

Mota guztietakoak izan dira. Adibidez, "udaletxera deitu dut eta gaztelerez erantzun didate". Herritarrek eskubide osoa daukate arreta euskaraz jasotzeko. Paisaia linguistikoarekin lotutakoak ere izan ditugu, adibidez kartelak erdara hutsean daudelako, edo euskaraz egonda ere txarto idatzita daudelako. Zerbitzu horiek eskaintzen dituztenekin harremanetan jarri eta laguntza eskaintzen diegu. Normalean asko eskertzen dute eta erantzuna ona izaten da.

Munduko jugger onena Unben

Uztailaren 20tik 23ra klubuen arteko Juggerreko Munduko Txapelketa jokatu da Eibarren. 68 taldek hartuko dute parte bertan eta 600 lagunetik gora arituko dira Unben egokituko dituzten zelaietan. Hiru egunetan zehar akzioa ez da geldituko eta munduko jokalaria onenak zuzenean ikusteko aukera izango dugu. Guda mundiala hastear da!

Mundu osoko 650 lagun inguru bilduko dira Eibarren datorren asteburuan. Alemaniako 15 talde, Australiako bi, eta Lituania, Suitza, Suedia, Hungaria, Frantzia eta Amerikako Estatu Batuetako talde bana arituko dira bertan, eta beste guztiak Espainiako hainbat tokitatik etorriko dira.

Adin guztietako jendea izango da, hor baitago juggeraren gaioetako bat. “13 urtetik gorako jokalaria egongo dira. Batzuk oso gazteak eta beste batzuk 50 urte ingurukoak”, diosku Jessica Ots Arima Galduak taldeko idazkariak. Zentzu horretan, zera gehitzen du Rousse Garcia Arima Galduak taldeko kideak: “Adin, genero eta arraza ezberdineko jendeak jokatuz dezaie juggerrean eta hori oso aberasgarria da. Izan ere, jende ezberdinarekin egiten duzu bat eta asko ikasten da”.

Lehia asteburuan zehar

Lehiakideek astelehenean jakingo dute noren aurka jokatuko duten, orduan egingo baita multzoen zozketa. Dena dela, irabazleek puntuak lortuko dituzten eta lehia bizia egongo den arren, talde guztiek hiru egunetan zehar jokatzeko aukera izango dute, inor ez baita kanporatuta geldituko. “Rankingean gora edo behera egingo dute taldeek, baina inor ez da kanpoan geldituko, hiru egunetan jokatzeko aukera izan dezaten”, azaldu digu Otsek. Hori bai, sariak lortzeko lehian puntu gehien lortzen dituzten taldeak arituko dira.

Taldeak eguen arratsaldean iristea aurreikusten dute antolatzaileek eta, harrera egin ondoren, juggerrean jokatzeko beharrezkoak diren armen kontrola egingo da, arauak betetzen dituztela ziurtatzeko. “Seguruenik batzuk eguazten gaeuen iritsiko direnez,

eguen goizean egingo zaie kontrola”, zehaztu digu Otsek.

Barixaku goizean, falta diren taldeen kontrola egin ondoren, lehia hasiko da Unben. “Unbeko hiru zelaiak erabiliko ditugu eta bakoitzean juggerreko sei zelai jarriko ditugu. Beraz, guztira 18 zelai egongo dira”, azaldu digute antolatzaileek. Partiduak 19:00etan amaituko dira eta 20:00etan Unbetik jaitziko dira. “Asmoa herrian giro polita sortzea da. Ia 700 lagun elkartzeko gara eta ikusiko dugu herrian zer egin dezakegun”, antolatzaileek diotenez.

Zapatuan egun osoan zehar egongo dira partiduak Unben, 09:00etatik 19:00etara. Domekan, azkenik, 09:00etatik 16:00etara multzoetako partiduak jokatzen jarraituko dute, baina 16:00etatik 18:00etara finalak jokatu dira eta, ondoren, sariak banatuko dituzte.



Arima Galduak taldekoak, aurkariekin batera, Berlinen jokatutako 2020ko Munduko Txapelketan. ARIMA GALDUAK

Antolakuntzaren erronka

Arima Galduak Eibarko jugger taldeak erronka polita izan du aurretik txapelketa antolatzen. “Orain dela urte batzuk sortu zitzaigun ideia, Alemanian jokatutako txa-

pelketa Espainiako talde batek irabazi zuelako eta, ondorioz, hurrengo estatuan jokatu behar zela pentsatu genuelako”, azaldu digu Otsek. “Orduan, ikusi nuen Eibarren turismoa sustatzeko lanetan

zebiltzala eta, aurten Kirolaren Europar Hiria garenez, Udalarekin harremanetan jarri eta dena presatzen hasi ginen”, gehitzen du.

Udala konbentzitu eta txapelketa Unben egingo zela jakin on-

ARRATEKO BERTSO AFARIA

TIRO PITXON JATETXEAN / 21:00etan



irailak 7 | **LEGUENA**



Maialen Lujanbio



Jesus Mari Inazu



Omintza Enbeita



Sustrai Colina

Sarrerak salgai BAZKIDEENTZAT uztailaren 10etik 21era ...eta kitto!-n (38€)
Uztailaren 24tik aurrera Guridin, Kultun eta Tiro Pitxonen (40€)



Juggerra joko ikusgarria dela esan digute Arima Galduak taldekoek. ARIMA GALDUAK

doren, mila gauza egitea egokitu zaie antolatzaileei, eta horietako bat Munduko Txapelketa jokatzera etorriko diren lagunei ostatu ematea izan da. “Ermuko frontoian, Amañako eskolan eta Elgetako kiroldegian egingo dute lo hainbat jokalarik”, azaldu digute. Koltxonetak lurtean jarri eta bertan egingo dute lo. “Beste batzuek, oster, euren kabuz erreserbatu dituzte logelak”, argitzen dute. Izan ere, orain dela hilabete arte ez zekiten zehazki non egin ahal izango zuten lo. “Pena izan da, talde batzuek ez dutelako izena eman horregatik”, diosku Garciak.

Antolatzaileen aldetik euren eskura duten guztia emango dute mundu osotik etorritako jokalariei ezer ez faltatzeko eta, zentzu horretan, Kaiku enpresakoen laguntza jasoko dute. “Hainbat produktu emango dizkigute parte-hartzaileei eskaintzeko”, esan digu Otsek. Gainera, Thelecer enpresa eibartarrak dohaintza egin die antolakuntzan laguntzeko.

>>> Uztailaren 20tik 23ra jugger partiduak etengabe jokatuko dira Unben eta sarrera doakoa izango da

Errespetua eta giro ona

Parte-hartzaile kopurua ikusita, ez dago zalantzarik giro paregabea biziko dela herrian datorren asteko asteburuan, baina antolatzaileek giro eder hori Unben ere bizitzea nahi dute eta bertara igotzeko gonbitea egiten diete herritarrei. “Txapelketak iraungo duen egunetan zehar momentu oro egongo dira partiduak. Lehia bizia izaten da, joko ikusgarria da, baina era berean errespetua eta giro ona gailentzen dira”, azaldu digute.

Giro ona bermatzeko, gainera, ‘Ortzadar Puntua’ jarriko dute Un-

ben, “berdintasuna sustatzeko, eta matxismoaren eta LGTBI fobiaren aurka egiteko”, esan digu Otsek. ‘Puntu Morea’ ere bertan egongo da. “Puntu hauetan informazioa eman- go dugu eta, zerbait gertatuz gero, bertara jo daiteke”, azaldu digu.

Sarrera doakoa izango da eta, inoiz jugger partidurik ikusi ez arren, oso ondo pasatzeko aukera ematen dela esan digute antolatzaileek. “Aurretik arauak eta dinamika ezagutu ez arren, joko erraz ulertzen da pixka bat ikusiz gero. Polita da ikusteko”, Garciaren ustez.

Txapelketa honekin herrian juggerarekiko zaletasuna haztea espero dute Arima Galduak taldekoek eta klubaren ateak irekita daudela gogorarazten dute. “Atsegin handiz hartuko genuke jende berria. Oso kirol polita da, ez da ezer ordaindu behar, asko ikasten duzu eta adin guztietako jendea ezagutzeko aukera ematen du, besteak beste”, euren berbetan. “Eta norbaitek beste talde berri bat sortu nahi badu, lagunduko diogu!”.

Sirena berriak: modalitate berri baten lehen urratsak

Eibar Igerixanek badu oihartzun txikiagoa duen sekzioa, igeriketa sinkronizatuarena. Bertan diharduen taldeak ikasturteari amaiera eman zion, aurreko ekainaren 24an, jendearen aurrean eskainitako ikuskizunarekin. Oso neska gazteek osatu dute azken urteko taldea eta euren prestaketetan gidari izan duten Nora Melorekin egoteko aprobetxatu dugu, askorentzat ezezaguna bezain polita eta ikusgarria den uretako kirol modalitate horren inguruan.



Nora Melok 16 urte besterik ez ditu eta Donostiatik dator Eibar Igerixaneko taldea entrenatzera. “Nire aurretik ere beste bi irakasle izan dituzte Easwin Artistikatik joanak, azkena Maria Lertxundi. Gure taldea beti egon da prest eibartarrei laguntzeko, izan aholkularitza, materiala edo, gure kasuan bezala, monitoreak eskaintzerako orduan”, dio Melok. Gurean egiten dituzten entrenamenduak astean egun bakarera mugatzen dira, “gorago egiteko gutxitxo akaso” monitorearen esanetan. Zapatuetan izaten dute tarte hori, goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00a arte. Azken ikasturtean, gainera, Eibarko taldeak zazpi lagun izan ditu bakarrik: “Gehiago ere izan ziren, baina beste konpromiso batzuk zituztela-eta, laga behar izan zuten”. Ikasturtea agurtzeko azken ekitaldian ere ez zen jende askorik izan, “euren familiako jarraitzaile sutsuak” han izan baziren ere.



Igeriketa sinkronizatuan zein adin tartekoak mugitzen diren galdetuta, “8-9 urterekin hasia” ikusten du egokien monitoreak eta, berak dioen bezala, “normalean 18-19ra arte irauten dute gehienek”, kasu partikularrak daudela onartzen badu ere. Maila izateko ere egokiago ikusten du “astean lau aldiz entrenatzea, txikitatik”. Horregatik dio “egunero ordu eta erdi edo bi ordu eginda, urtebetera neurri bateko maila” emateko moduan

izango lirakeela. Azken batean, “lehiatzeko behintzat, astean hiru aldiz entrenatu behar duzu; gutxiago eginez, familia arteko ikuskizunetara mugatu behar zarelako”. Ordu gutxi izateaz gain, beste zailtasun batzuei ere egin behar izan die aurre Eibarko zazpikoteak: “Gure ariketetarako beharrezkoa da musika ur azpian izatea, eta guk hori ez dugu. Nik kanpotik makil batekin jotzen dut erritmoari zelan jarraitu behar dioten adierazteko”.



Nora Melo (eskuinean) da Eibarko taldearen monitorea. Donostiko Easwin Artística taldekoa da bera eta zapatuero etortzen da Eibarrera.

Irailean hasteko aukera

Indarra eta erresistentzia lantzen dituzte entrenamenduetan, batez ere. Eta ez dituzte ahazten “oinarrizko remadak, errutinak edo segidak eta ezta egin beharreko posizio ohi-koenak ere”. Remadak eta errutinak igeriketa sinkronizatuan erabiltzen diren hitzak direlako: lehenengoak eskuekin egindako mugimenduak dira, etengabe eta erritmo desberdinetan; bigarrenak uretan egindako mugimendu atletikoen serieak dira, musikaren erritmora koreografiatzen direnak. Horren inguruan dihardu lanean Norak prestatzen duen Eibar Igerixaneko taldea: “Denetarik egiten dugu: mugimendu zehatzak, oinarrizko remadak, suspentsioari eusteko ariketak, altura hartzekoak... hainbat arlo eta aukera landu behar dira, flexibilitatea tarteko. Ezin dugu ahaztu, ezta ere, buzeroa eta apnearena”. Guzti hori, jakina, azkenean 3 minutuko

saioan taldeak eman ahal duen guztia modu aproposen eta bikainean eskaintzeko.

Talde polita sortu dutela dio monitorea, eta balore hori jotzen du igerilari guztientzat aberasgarri bezala. “Ekipoa egiteak duen garrantzia ahaztu barik, sinkronizatuak ikusgarritasun aldetik ere badu, jauziak eta posizioak deigarri izan daitezkeen neurrian. Gerora ere, ikasten dutena oso erabilgarri egingo zaie, energia gutxien gastatuz



"Ikasten dutena oso erabilgarri izango zaie euren bizitzan gerora ere"

flotatzen jakingo dutelako. Horrela, euren gorputzarekin esperimentatzen dute, hobeto ezagutzen dute eta, aldi berean, taldera egiten dira”.

Eibar Igerixaneko bestelako sekzioetan bezala, irailan hasiko dute hurrengo ikasturtea. Interesatuak, jakina, klubera jo dezakete izena emateko eta kirol polit horretan jarduteko. Nora Melok, bere aldetik, “kaña gehiago sartzeko asmoa” ere badu. Bitartean, Donostiako bere klubean jarraitzen du “Espainiako txapelketarako prestatzen”. Easwim Artisticak, jakina, beste maila batean lehiatzen du, urteetako lanaren emaitzaren fruitu. Eta Norak ez du ahaztu nahi Sara Alonso bere entrenatzailearen lana, igerilekukoa zein igerilekutik kanpoko: “Gure taldearen bainujantzi guztiak eskuz egiten dituelako, berak diseinatu eta josi: aplus markarekin ezagutzen dira. Eta bera izan da, gainera, ni Eibarrera ekarri nauena”.

Zaila bezain ikusgarria

Igeriketa sinkronizatuak (artistikoa ere deitzen da) kirola, dantza eta gimnasia batzen ditu; eta hiruko horrekin sortutako dotorezia ur azpiko eta gaineko erakustaldietan intentsitatea eta erritmoa ditu lagun. Ur azpiko apnearen kontrola oso garrantzitsua da kirol horretan, uretako abildade, erresistentzia fisikoa eta flexibilitatearekin batera. Lau modalitate ditu: bakarkakoa, binakakoa, taldekakoa eta konbo edo konbinatu librea. Lehiaketa, bestalde, bi zatitan banatzen da: ariketa teknikoa alde batetik, eta ariketa librea bestetik. Epaileek bi errutinetako kalitate tekniko eta artistikoa baloratzen dituzte, “errutina teknikoan denbora epe batean ordenean egindako figurak, eta librean igerilariak sartutako mugimendu artistikoak eta ukitu pertsonalak”. Hori bai, igerilariak igerilekuko hondoa ukitzen badute edo ertzari heltzen badiote, zigorra jaso dezakete.

Banakako lehiaketetan 2 minutu dituzte derrigorrezko zazpi elementu desberdin egiteko; bikote modalitatean 2’20” bederatzi elementu egiteko eta “ispilu” erako ariketak ez daude onartuta; eta taldeko modalitatean 3 minututan 19 elementu eta, gutxienez, formazio biribil bat eta marra zuzeneko formazio bat egin behar dute. Ariketa librean, bestalde, igerilariak beren ikuskitzunei ukitu pertsonal eta artistiko bat ezartzen diete, inongo derrigorrezko elementurik egiteko beharrik gabe. Normalean, igerilariak igerilekutik kanpo hasten dira eta 10 segundo dituzte uretan sartzeko; ariketa librearen iraupena 2-4 minutu artekoa izan ohi da.

Taldeko modalitatean taldeak zortzi igerilari osatzen dituzte eta guztiz sinkronizaturik jardun behar dute, nahiz eta guztiek figura



Eibar Igerixaneko igeriketa artistikoaren taldea San Juan eguneko erakustaldian.

Lau modalitate ditu: banaka, binaka, taldeka eta konbo edo konbinatu librea



Lehiaketetan arlo teknikoa eta artistikoa baloratzen dute epaileek

berdina ez egin. Kategoría absolutuko lehiaketa ofizialetan, ariketa tekniko bat eta ariketa libre bat eraman behar dute aurrera. Konbo modalitatea talde modalitatearen antzekoa da, baina bakarkako ariketak hartzen ditu barne, hau da, igerilariak koreografia berean elkarrekin igeri egiten badute ere, gero bakoitzak bakarka egiten du, amaieran berriz denek elkarrekin igeri egiteko.

Baita mutilek ere

Egin beharreko posizioei dagokienez, hauek nabarmendu daitezke: bizkarreko luzatua, aurrez-aurreko luzatua, balleteko hankarena, flamenkoa, bertikala, garabiarena, arrain buztanarena, uzkurutakoa, aurrez-aurreko karparena, bizkarreko karparena, izurdearen arkuarena, gain-azaleko arkuarena, belauna tolestatutakoena, upelarena, zaldunarena, hegaleko arrain buztanarena eta espagat posizioa, burua uretatik kanpo duen posizio zuzenarekin batera.

Hasieran neskek bakarrik praktikatzen zuten kirola izan arren, pixkanaka eta denborarekin, mutilek ere praktikatzen duten kirol bihurtu da. 2015ean bikote mistoen diziplina gehitu zen, mutilen lehiaketeko eskaera zela eta.

Animatu zaitezke, beraz, igeri eginez gauza berriak ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen duen kirol modalitate hau probatzera. Onurak ez dira gutxi-eta: arnas-sistema hobetzen du, baita arintasuna ere, flexibilitatea entrenatzen du, gihar-hezurdura indartzen, koordinazioa zer esanik ez, tentsioak ezabatuko dizkizu eta erresistentzian ere gora egingo duzu.

Ipuruako gimnastek Espainiako Kopan lortutako zilarrekin itxi dute denboraldia

Aurreko domekan Ourensen jokatutako Espainiako Kopako bigarren fasean, Ipuruako senior taldea 23,050 puntu eskuratu eta podiumeko bigarren kajoira igo zen, hiru uztaiz eta bi pilotekin egindako ariketa bikainari esker. Nahia eta Haizeder Arguiz, Indira del Pino, Arrate Baskaran eta Naroa Alonsok osatu zuten boskotea. Ez da lehen aldia Ipuruako taldeak horrelako emaitza lortzen duena: urrutirago joan barik, bi zilar eta brontzea eskuratu zuten 2019an eta urrearen jabe egin zen 2021ean, azken zilarreko honen aitzindari.

Ourensen bertan taldekako banakako txapelketa ere jokatu zen



barixakuan eta zapatuan. Horrela, 66 gimnasten artean, Haizeder Arguizek 9. postuan amaitu zuen uztaiarekin eta Nahia Arguiz 11. izan zen mazoekin. Valentzian jokatutako autonomien arteko txapelketan, bestalde, Indira del Pino partaide

izan zuen Euskadiko Federazioaren laukoteak brontzea eskuratu zuen. Tania Nagornaia, Miriam Merino eta Natasha Urmakaeva buru dituen talde teknikoaren eskua jarraitzen da nabaritzen gure herriko gimnasten emaitzetan.

Eskozia la Bravak peñen arteko XV. Torneoa egingo du asteburuan

Zapatu eta domeka honetarako antolatatu du Eibar FT-ko peñarik dinamikoenak pandemiaren aurretik 14 urtetan egin zen peñen arteko torneo. Antolatzaileekin batera,

gertuen dauden peñek hartuko dute parte: Burgosko la Kuadrilla eta Peña Burgalesa, Mirandako Komando Kemanda, Logroñoeko la Resaca Blanquirroja eta Calaho-

rrako Crianza Rojilla. Torneoako partiduko guztiak Ipuruako anexoan jokatuko dira.

Bihar 12:00etan harrera egingo zaie peñei Unzaga Hotelean. Hortik Ipuruako anexora joango dira eta 13:00ean txosna zabalduko dute, eta "makarroi-jana eta bermoutha" izango dira. 16:00etan hasiko dira partidukoak eta, horien amaieran, Unzaga Hotelean izango dute afaria. Behin domekan sartuta, 10:00etan txosna zabalduko dute berriro eta, jarraian, finalerdiak jokatuko dira 10:30etik aurrera. Hirugarren eta laugarren posturako partidua 11:30ean hasiko da, eta ordubete geroago, 12:30ean, finala izango da. Sariak banatuta, 14:30ean itxierako bazkaria egingo dute.



Aurreko edizio batean parte hartu zuen Eskozia la Bravako taldea.

Herenegun aurrendenboraldia hasi zuen Eibar FT-k zortzi lagunarteko jokatuko ditu

Eguaztenean Yeray Martinen aginduetara aurrendenboraldiko lehen saioa egin zuen taldeak gogotsu ekin dio entrenamenduei berriro 1. Mailara itzultzeak taldeari eman dion energiarekin. Eta, dagoeneko, konfirmatuta ditu aurrean izango dituen hainbat lagunarteko: abuztuaren 5ean Athletic-eko bigarren taldearen aurka jokatu du, tokia eta ordua oraindik zehaztu gabe badago ere; hilaren 12an Osasuna izango du aurkari Errenterian, 19:00etan hasita; 16an Athletic Cluba berriro, baina oraingoan lehen taldea izango dute aurrean; 19an 1. Maila galdu duen Deportivo Alavesekin neurtuko ditu indarrak; 22an, UDG Tenerife Egatesarekin izango da, nor baino nor, Tafallan; 26an edo 27an aurten aurkari zuzena izan duen RC Deportivoen aurka jokatu du; 30ean Madrild CFF talde indartsuarekin neurtuko dituzte indarrak Palentzian, La Nueva Balastera estadioan 19:00etan hasiko den norgehiagokan. Abuztuak 2 an edo 3an, bestalde, Euskal Herria Kopako partidua ere izango dute zain.

Fitxaketei dagokienez, aste honetan itzuli da berriro taldera azken

denboraldian Alavesekin jokatu izan duen Elba Verges atzelaria. Kataluniako zentrala garrantzitsua izan daiteke atzeko lerroari sendotasuna emateko orduan eta hurrengo bi denboraldietarako sinatu du. 2021-22 denboraldian ere izan zen Eibarren, partidu guztietan titular izanik gainera; Alavesekin ere, nahiz eta maila galdu, atzelaria izanda ere lau gol sartu ditu azken Ligan.

Bere aurretik beste hiru jokalaririk fitxatu ditu Eibar FT-k denboraldi berrirako, bi DUX Logroño taldetik, eta hirugarrena, Atletico Balearesetik datorrena. Nati Cano aurrelaria da azken hau, 12 gol sartu ditu azken denboraldian eta hiru urterako sinatu du. Annelie Leitner eskuin hegaleko austriarrak eta Amani Kakounan Boli Kostako erdilariak bina denboraldietarako sinatu dute.

Mario Soriano

Azken bi denboralditan goeraren ateetan geratu eta gero, gizona zioen Eibar FT-k astelehenean ekin zion aurrendenboraldiari. A Coruña-ko Deportivo-tik datorren Mario Soriano puntaerdia izango da Joseba Etxeberrriaren taldeko lehen fitxaketa, hainbat hedabidek diotenez.



Osoro eta Urkiola eibartarrak bigarren Legutioko Triatloian

Pello Osoro eta Aitziber Urkiola eibartarrak podiumeko bigarren postuarekin konformatu behar izan ziren aurreko zapatuan jokatu-tako Legutioko Triatloi Olinpikoan. Igerian kilometro eta erdi, bizikleta gainean 40 kilometro eta antxintxiketan beste 10 eginez osatzen den distantzia hori egin zuen baita JAZ Eibar Triatloi Taldeko hirukote batek. Alex Higuerak (**argazkian**) 73. postuan amaitu zuen (02:52:23ko), Javi Muñoz 89. postuan helmugaratu zen (02:59:27) eta Roberto Garzia ehungarren izan zen (03:03:53).

Hodei Ezpeleta etzi eguerdian Zornotzan

Zornotzako Larrea zelaietan jokatu da domekan aizkolarien Liga Txapelketako bigarren jardunaldia eta han izango da Hodei Ezpeleta "Bihurri", Jokin Urretabizkaia "Bazozabal" aurkari duela. Buruz-buruko eguerdiko 13:00ean hasiko da eta aizkolari biek bost modalitatetan banatutako zortzi mozketatan nork amaitzen duen azkarren "erabaki" beharko dute.



Elba Vergesen esperientziak pisu handia izan dezake igoberria den taldean.



Kezkako dantzariak Iruñeko sanferminetan egon dira

Zapatuan Duguna eta Kezka dantza taldeetako dantzari gazteak ibili ziren dantzan, Iruñeako San Jose plazan, San Fermin jaien egitarauaren barruan: “Dantza eta lagunarte egun zoragarria pasatu genuen Iruñean, Dugunaren eskutik, bi taldeon dantzari gaztetxoen trukean, elkarrekin dantzan egin, bazkaria prestatu, bazkaldu, jolasak eta festarekin. Mila esker Dugunako lagunei, eta segi munduko festa ederrenak hain atsegin egiten”.



Ederto ibili ziren Lambretta motorren topaketan

Eibarko Lambretta Klubaren eskutik asteburuan egin zen XVIII. Eibarko Lambretta motorren topaketan elkartu ziren motozaleak ondo baino hobeto ibili ziren, Eibarren egindako motorren gainean, gure herriko kaleetan ez ezik, inguruko herrietan ere.



Lisker taldeko Xabier Labaien teklatu-jolea hil da

Lisker taldeko teklatu-jolea, Xabier Labaien Bergara musikari eta soinu teknikaria hil zen martitzenean, Bergaran, bere jaioterrian, 59 urte zituela. Eibarren ez ezik, *Txabi* ezaguna zen Soraluzen, herriko kultur emanaldi askotan jardun zuelako teknikari lanetan eta denbora batez bertan bizi izan zelako. Bere heriotzaren albisteak atsekabe handia sortu du lagun eta ezagunen artean. Heriotza gertatu eta berehala, Lisker taldearen kontzertuak bertan behera geratzen direla jakinarazi zuen taldeak.



Urriaren 12ra arteko epea dago JSM Bekara aurkezteko

Juan San Martin bekaren 2023ko deialdian ‘Mendizaletasuna eta natura’ izango da ikerketa-eremua. Eibarko ikertzailearekin estu lotutako gaia da, izan ere, San Martin Klub Deportiboko bazkide izan zen eta batzorde askotan egin zuen lan (horietako batzuk berak sortu zituen), eta mendizaletasunarekin eta eskaladarekin zerikusia zuten haren lanak herritik kanpo ere asko hedatu ziren. Urriaren 12an amaituko da eskaerak aurkezteko epea eta Udalaren webgunean ikusi daitezke bekaren oinarriak.



Sankristobalگو “ez-jaiak” ospatuko dituzte bihar

Aurten ez da Sankristobalگو jairik egin, baina, hala ere, “ez-jaiak” ospatzeko egun osorako egitaraua prestatu dute biharko, Kantabriako Etxekoek Ipuruan daukaten bolatokian. Goizetik hasiko dira, 11:30etik 13:00era haurrentzat egingo diren jolasekin. Jarraian, 14:00ak arte, helduen txanda izango da: igel-toka eta futbolin txapelketak jokatu dira eta irabazleentzat sariak egongo dira. Ondoren, 15:00etan, herri-bazkaria egingo da, Boleran bertan. Menu bakarria egongo da eta tiketak 15 eurotan erosi daitezke Maixa tabernan (Calbeton) eta Boleran (Ipurua). Arratsaldeko jarduerak 18:00etan hasiko dira: Zelai-bide tabernan piskolabisa eskainiko dute, doan, eta 19:00etatik aurrera gauza bera egingo dute Boleran. Iluntzeko 20:00etatik aurrera, berri, Miguel Angel Frey *Baldomero*k rantxerak kantatuko ditu. Eta 21:30etik 23:30era berbena egingo da, betiko musikarekin, Nevreda eta The Kraken DJ-ek girotuta.



Udalak uretako puzgarriak ipiniko ditu Untzagan

Udako beroari aurre egiteko plana prestatu du Udalak: gaur eta astelehenean uretako puzgarriak ipiniko dituzte Untzagan, 16:30etik 19:30era, bertan freskatu eta jolastu nahi duten umeentzat.



Arrateko bertso-afarirako sarrerak salgai bazkideentzat

Irailaren 7an, Arrate bezperan egingo den bertso-afarirako sarrerak aste honetan jarri ditu salgai ...eta kitto!-k. Elkarteko bazkideek izango dute sarrerak erosteko lehentasuna: 38 eurotan erosi ahalko dituzte ...eta kitto!-ren bulegoan (Urkizu, 11 solairuartea), uztailaren 21era arte. Uztailaren 24tik aurrera, berri, 40 eurotan salduko dira Guridin, Kultun eta Tiro Pitxonen. Aurten ere puntako laukoteak bisitatu du Arrate gaina: Maialen Lujanbio, Onintza Enbeita, Sustrai Colina eta Jesus Mari Irazu bertsolariak jardungo dute "nor baino nor" Jon Mikel Mujika gai-jarzailearen esanetara. Toki-muga dela eta, 80 sarrera jarriko dira salgai guztira.




Eibar Rugby Taldekoen Garagardo Azoka irailean


Zenbait urteko etenaldiaren ondoren, bueltan dator Eibar Rugby Taldearen Garagardo Azoka. Aurreko edizioetan San Juan jaien aurretik egiten bazen ere, aurten irailean egingo da, 13tik 17ra, eta Untzagako ohiko kokalekua laga eta Errebal Plazan izango da oraingoan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, zuzeneko musika egongo da, km0 janaria eta, nola ez, garagardoa.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5		7	6		3		9
					1		
9				8	7	6	
				5	6		4
		5			2		
8	7	9					
	7	9	1				6
		8					
3	4		8	2			5



soluzioa



soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	4		1					
	2				9	3		
1	5		2					8
2		5		7				
		4		1		5		
				5		2		7
	1				4		6	8
		9	8				3	
					7		2	

**S
U
D
O
K
U**



AURKITU EZBERDINTASUNAK: 7 GOIKOAN ETA 10 BEHEKOAN



Uztailak 14/20

BARIXAKUA 14

AMAÑAKO JAIAK

14:30 Jubilatuetako bazkaria. Unzaga Plaza hotela.

19:00 Bertso-merienda, Sustrai Colina eta Onintza Enbeita bertsoariekin. Sosola baserria.



EKITALDI KULTURALA

20:00 "Berriro egingo dugu", EH Bilduren ekitaldia, Arantza Mata eta Arkaitz Rodriguezekin. Ondoren, kontzertua, Hemen taldearekin. Eibarko Bizikleta Plaza.



ZAPATUA 15

SANKRISTOBALGO JAIAK

11:30/13:00 Haurrendako jolasak: moto-lasterketa, sokatira eta igel-toka, goxoki, freskagarri eta sorpresekin.

13:00/14:00 Helduetako jolasak: igel-toka eta futbolina. Sariak irabazleentzat.

15:00 Herri-bazkaria.

18:00/19:00 Piskolabisa: tortillak, urdaiazpikoa, gazta eta kanapeak, ardo goxoarekin. Doan. Zelai Bide taberna.

19:00/20:00 Piskolabisa: tortillak, urdaiazpikoa, gazta eta kanapeak, ardo goxoarekin. Doan. Bolera.

20:00/21:00 Kontzertua: rantxerak, Miguel Angel Frey (Baldomero) abeslariaren eskutik. **21:30/23:30** Berbena, betiko musikarekin (DJ Nevreda eta DJ The Kraken). Kantabriako Etxearen Ipuruako Bolera.



PEÑEN ARTEKO TORNEOA

12:00 Harrera. Hotel Unzaga.

13:00 Txosna irekiera, makarroi-jana eta bermoutha.

16:00 Partiduen hasiera. Ipuruako anexoa..

DOMEKA 16

PEÑEN ARTEKO TORNEOA

10:00 Txosna irekiera.

10:30 Finalerdiak.

11:30 3. eta 4. posturako partidua.

12:30 Finala.

14:30 Itxierako bazkaria. Ipuruako anexoa.

EGUAZTENA 19

FACTORING

10:00/20:00 Udako

Merkealdien Azoka.

Toribio Etxebarria kalea.



EGUENA 20

FACTORING

10:00/20:00 Udako

Merkealdien Azoka.

Toribio Etxebarria kalea.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaeleentzat. Untzaga jubilatuetxea.



ERAKUSKETAK

Irailaren 1era arte:

- "TAILERRETIK BULEGORA.

EIBARKO PRODUKTUAK".

(Armagintzaren Museoa).

Irailaren 30era arte:

- "ANDRETXEA, GURE

GELA PROPIOA".

(Andretxea).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

14an (BARIXAKUA)

JAI-AURREKOA

19:00 / Plaza

Txarangen jolasak

KONTZERTUA

23:00 / Plaza

Sir Aligator's Company

15ean (ZAPATUA)

ERAKUSKETA

10:00-21:30 / Pilotalekua

II. Txakurren Erakusketa

MUSIKA

19:30 / Komentukua

DJ Festa (Mar.isk.al)

KONTZERTUA

23:30 / Plaza

Merina Gris + Nogen

16an (DOMEKA)

BOLO-PALMA

12:00 / San Pelaio

GOAZEN KARAOKEA

19:30 / Plaza

BERTSO-JAIALDIA

20:30 / Plaza

DEBA

15ean (ZAPATUA)

GALERNA FESTA

11:00-22:00 / Zumardia

11:00 Kuadrillen arteko

jolasak

15:00 Herri-bazkaria

20:00 Kalejira, txarangarekin

22:00 Kontzertua:

Debras Band + DJ

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **15ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **16an:** 17:00, 20:00
- **17an:** 19:30

"Vacaciones de verano"
UMOREZKOA



2023/Espainia /120'
Zuzendaria: Santiago Segura
Aktoreak: Santiago Segura,
Leo Harlem, Sirena Segura
Komedia / Zine familiarra

2 ARETOA

- **15ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **16an:** 17:00, 20:00
- **17an:** 19:30

"Elemental"
ANIMAZIOZKOA



2023/AEB/103'
Zuzendaria: Peter Shon
Fantastikoa / Abenturak

ANTZOKIA

- **15ean:** 16:30, 19:15, 22:30
- **16an:** 16:30, 20:00
- **17an:** 19:30

"Misión imposible"
AKZIOZKOA



2023/AEB/156'
Zuzendaria: Chris McQuarrie
Aktoreak: Tom Cruise, Rebecca
Ferguson, Vanessa Kirby
Thriller-a / Espioitza / Sekuela



Aitor Abanzabalegi Aranguren

20. URTEURRENA
2003/07/11

**"20 urte pasa
diren arren,
gure bizitzetan
zure arrastoak
bizirik dirau"**

- ZURE FAMILIA -





Maripaz Caperochipi Garate

1946/07/19 – 2023/07/06

**"Gure poxpolintxoal!
Eskerrik asko zugandik
jaso dugun maitasun
guztiarengatik.
Zure indarra, poza
eta irribarrea beti izango
dira gure bihotzetan,
goxo-goxo zu gogoratzen"**

ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEOAK -



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **JON**, hillaren 17xan urtiak beteko dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Uxueren partez.



Zorionak, **JARE**, bixar 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Learen partez.



Zorionak, **MARKEL**, martitzenian 7 urte bete zenduazena-eta. Musu bat Aitana arrebia, Maialen lehengusiña eta etxeko danon partez.



Zorionak, **NILE!!** Eguaztenian 7 urtetxo bete zenduazena-eta!! Patxo potolo bat famelixa danaren eta, batez be, Pello, Pol, aitatxo eta amatxoren partez.




Zorionak, **ANER!!!** Eguaztenian 13 urte egin zendua-zelako. Milla kilo musu eta besarkada haundixa guztion partez.



Zorionak, **ENEKO!!!** Bixar 8 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi-haundi bat etxeko danon partez!!!



Zorionak, **NAIA**, eguaztenian 11 urte bete zenduazena-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea salgai Amañan. 665726895 eta 688767198.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Erizaintzako teknikari laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaindu edo pasiatzera ateratzeko eta garbiketarako egiteko (etxeak, pegorak, bulegoak,...). Orduka. 612460920.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Interna. 697754174.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Interna. 604986450.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Interna. 612554744.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Esperientzia-rekin. Orduka. 642855788.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Interna. 602592092.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta oportunitate ordezkapenak egiteko. 631425686.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 641756213.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 697958198.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta animaliak pasiatzeko. Orduka. 697958198.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta peorak edo etxeak garbitzeko. 665598721.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624910333.

4.2. Langile bila

- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz-klinika bateko lan-taldean. Endodontzia eta odontopediatrian esperientzia baloratuko da. Bidali curriculum: niklinika@gmail.com
- Odontologoa behar da hortz-klinika batean. Formazio aukera eta talde-lanean jardutekoa. Bidali curriculum: dentalweb@hotmail.com

- Martxan dagoen taberna eskuragarri. Baldintza onak. 645109141
- Dendaria behar da Eibarko moda-denda batean. Jornada erdiz (goizez). Bidali curriculum-a: eibardenda@yahoo.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Eibar BHI-ko DBH 3. mailako Gizarte eta Ingelesko liburuak salgai. 615712216.
- Binilozko diskoak, LPak eta singleak erosten ditut. 688624326.



osasun gida

Okulistak

 **Recalde**
 Clínica Oftalmológica
 Oftalmología Clínica

• Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

R.P.S. 204/13

Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOIA

838200124
 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria, 5 - 1. A
 943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

Psikologia klinika eta
 Psikoterapia zentroa

 Oscar Mondragon Lili
 GOIZEZ ETA ARRATSALEZ

Urkizu, 13 - behea
 tel. 943206823 / 686859023

 PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
 HELDUENTZAKO
 PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
 Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
 943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
 943 799746

PODOLOGOIA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (122 Kolegiatu zenb.)
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zenb.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zenb.)




PODOLOGOIA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
 Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zenb.




943-206776

gremioen gida



943-206776

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.linmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. LANTZARITZEN
TEKNIKAK, S.B.
ERAKUNTZA

E.I.T.
ERAKUNTZEN
TEKNIKAK, S.B.
ERAKUNTZA

Industria-zerbitzua. Tfnoa: 943 943 00 10 00
A.I.T. Ziburtasuna S.L.P.
Barriona, 6 - beheko esk.

KRISTALAK

ACHA *Kristaldegia*

HELBIDE
BERRIA: J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA
Tfnoa eta faxa: 943 203 903 Arkitxaneko Zubian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzedia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txenta, 30 - 1. eta behea

Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA

EBARREN, Urkizu 26an (Tol. 943 12 74 01)

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobear
goza dezazun

Aziton Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

Tel. 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

ELEKTRIZITATEA

THELECER

TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
argintziak

610 532 922 www.thelecer.com